

61. FITXA Landa-eremuetan merkataritza-jarduera babesteko laguntzak 2023 - NGEU

Norentzat: 5.000 biztanle arteko udalerrriak; foru-aldundiak, eskualdeak, mankomunitateak, hainbat udalerrri biltzen dituzten beste erakunde batzuk eta udalerrri-elkarteak, baldin eta jarduera hedatuko den udalerrrietako biztanleriaren batez besteko sinpleak 5.000 biztanle gainditzen ez baditu.

Sarbide-esteka: <https://www.mincotur.gob.es/PortalAyudas/mercados-sostenibles-zonas-rurales/Solicitudes/Paginas/Index.aspx>

Erreferentziazko araudia: [BOE 62. zk., 2023ko martxoaren 14koa](#)

Eremuak: Merkataritza

Zenbatekoa: 22.000.000 €

Aurkezpen-amaiera data: 2023ko apirilaren 14a

Laburpena

Laguntza-lerro hauek **13. Osagaiari, "ETEak bultzatzeari",** atxikita daude 4. inbertsioen atalean: **"tokiko ekonomian merkataritza-sektorea babestea".**

5.000 biztanle arteko toki-erakundeetan banaketa-kanalen lehiakortasuna, berrikuntza eta modernizazioa bultzatzea lortu nahi da, bereziki, jenderik gabeko eremuetan edo biztanleria-dentsitate txikiagoko eremuetan, **horretarako egungo teknologia erabiliz, ekonomia- eta gizarte-kohesioa sustatuz, enplegua sortuz, udalerrrien, saltokien eta bizilagunen arteko sinergiak sortuz eta produktuen kontsumoa eta entrega erraztuz.**

Toki-erakunde hauek jaso ahal izango dituzte ezarritako laguntzak:

- **5.000 biztanle arteko udalerrriak.** Udalerrri batek eskatzailearen inguruko beste udalerrri batzuen lurraldean gauzatuko den proiektu baterako laguntza-eskaera bat aurkeztu ahal izango du, baldin eta jarduketa hedatuko den udalerrrietako biztanleriaren batez besteko sinpleak 5.000 biztanle gainditzen ez baditu. Kasu horretan udalerrri hori izango da onuradun bakarra, betiere, proiektua gauzatzeko behar diren baimenak baditu.
- Probintziak, **foru-aldundien** bitartez, betiere proiektu-jarduketa planteatzen den udalerrrietako biztanleriaren batez besteko sinplea **5.000 biztanletik** gorakoa ez bada. Udalaz gaindiko onuradunek hainbat udalerriri eragingo dien proiektua bakar gisa aurkeztu beharko dute, eta proiektu hori gauzatzeaz eta justifikatzeaz arduratuko dira.
- Jarduketa edo proiektua planteatzen den udalerrrietako biztanleriaren batez besteko sinplea **5.000 biztanletik** gorakoa ez den hainbat udalerrri biltzen dituzten **eskualdeak**.

- **Hainbat udalerri biltzen dituzten beste erakunde batzuk**, autonomia-erkidegoek Toki Araubidearen Oinarririk arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen eta dagozkion Autonomia Estatutuen arabera eratutakoak, baldin eta jarduera edo proiektua planteatzen den udalerrietako biztanleriaren batez besteko sinplea ez bada **5.000 biztanletik** gorakoa.
- **Udal-elkarteak**, baldin eta oso-osorik toki-erakundeek osatzen badituzte, edo, gutxienez, toki-erakunde batek osatzen baditu eta apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. eta 26. artikuluen arabera toki-erakundeei esleitutako zerbitzu edo eskumenetako bat emateko sortu badira, eta betiere nortasun juridikoa justifikatzen badute (adibidez, partzuergoak). Aurreko kasuetako edozeinetan, betiere jarduketa edo proiektua planteatzen den udalerrietako biztanleriaren batez besteko sinplea **5.000 biztanletik** gorakoa ez bada.
- **Udal elkarteak**, betiere jarduketa edo proiektua planteatzen den udalerrietako biztanleriaren batez besteko sinplea **5.000 biztanletik** gorakoa ez bada.

Gastuetarako aldi hautagarria

2023ko urtarrilaren 1etik 2024ko ekainaren 30era bitartean sortutako eta ordaindutako gastuak finantzatu ahal izango dira.

Kanpoan geratuko dira eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunerako amaituta dauden proiektuak.

Laguntzen zenbatekoa eta mota

Egin beharreko **gutxieneko inbertsioa** biztanle-kopuruaren arabera izango da:

- Foru-aldundien kasuan, 250.000 €.
- Eskualde eta eskualde-kontseiluen kasuan, 100.000 €.
- 5.000 biztanletik beherako udalerrietan, 50.000 €. Udalaz gaindiko eremuetako eskatzaileek egin beharreko gutxieneko inbertsioa zehazteko, diruz lagundu daitezkeen jarduerak garatuko diren mugapeko udalerrien batez besteko biztanleria hartuko da kontuan.

Eman beharreko laguntzaren intentsitatea finantzarritzat jo den proiektuaren aurrekontuaren **% 100ekoa** izango da, eta gehieneko dirulaguntza **500.000 eurokoa** izango da.

Diruz lagun daitezkeen kontzeptuak

Onuradun izan daitezkeenek laguntza-eskaera bakarra aurkeztu beharko dute, urteka banakatu ahal izango dena, eta jarraian adierazitako gastu-kategoria bat edo gehiago bildu ditzakeena:

→ **Eraldaketa digitalera** bideratutako gastuak:

- Landa-eremuetan kokatutako establezimendu fisiko ez sedentarioa duen merkataritza-sektorearen salmentaren funtzionalitateak ezartzeko, mantentzeko edo hobetzeko inbertsioa, negozio-ereduen omnikanalitatea sustatzen duten eta bezeroen ingurune digitalean erosketa-esperientzia hobetzen duten kanal digitalen bidez.
- Merkataritza-jarduera tokiko kontsumoa sustatzeko eta bultzatzeko, sare sozialetan, aplikazioetan edo toki-erakundearen webgunean merkataritza-animazioko kanpainak eginez sustatzea.
- Publizitatea, komunikazioa eta ikusgarritasuna hainbat baliabide edo euskarri digitalean, teknologia berriak erabiliz.

- Saltokiek beren barrutian dituzten eraldaketa digitaleko beharrei erantzuten dieten beste inbertsio batzuk.

→ **Salmenta-puntuaren** eraldaketarekin lotutako gastuak:

- Udalerriaren hornidura bermatzeko funtsezko merkataritza-jarduera sortzea edo mantentzea. Merkataritza-gune berri bat ezartzeko edo lehendik dagoen establezimendu bat hobetzeko inbertsioak toki-erakundearenak diren lokaletan edo espazioetan egingo dira, eta horietan garatu beharko da, gutxienez, merkataritza-jarduera; jarduera hori komunitatearentzat interesgarriak diren beste zerbitzu batzuekin osatu ahal izango da.
 - || Merkataritza-establezimendu berri bat eraikitze lanak. Establezimenduaren iraunkortasuna eta eraginkortasun energetikoa hobetzen duten eta irisgarritasuna bermatzen duten elementuak sartu beharko dira.
 - || Lehendik dagoen saltoki bat eraberritzeko edo egokitzeko lanak.
 - || Merkataritza-establezimenduak eta gune berean garatzen diren gainerako zerbitzuek behar bezala funtzionatzeko beharrezkoa den merkataritza-ekipamendua erostea.
 - || Ez dira diruz lagunduko jarduera komertziala COVID-19ra egokitzearekin lotutako jarduerak.
- Merkataritza ez-sedentarioaren eta merkaturatze-bide laburren eraldaketa digitala; eskaintzaren eta eskariaren kudeaketa hainbat euskarri digitalen bidez eta bezeroaren eta hornitzailearen arteko harremanaren bidez hobetuko duten ekintzak bultzatzea, banaketa-ibilbide eraginkorrako diseinatzeak aukera emanez.
- Udal-merkatuek, merkataritza-eremuek eta merkatu ez-sedentarioek eta horien eremu mugakideek okupatutako eremuen instalazioak, irisgarritasuna eta egokitzapena hobetzeko obretan inbertitzea.
- Eskuratutako produktuak erosteko eta ordaintzeko prozesuan teknologia berriak sartzea, merkataritza-establezimenduetan ilarak eta pilaketak saihestuz, eta bezeroei eskaintako ordainketa-modalitateak eguneratuz.
- Produktuak entregatzeko eta itzultzeko modalitate berrietan inbertitzea, irekitzeko edo banatzeko ordutegietatik kanpo. Diruz lagunduko dira zerbitzu horiek abian jartzeko establezimenduko espazioen lanekin eta eraberritzearekin lotutako gastuak, eta, hala badagokio, merkataritza-eskaintza eta antzeko beste sektore batzuk hobetzearekin eta ikusaraztearekin lotutako jarduerak ere, teknologia berrien bidez erosketa-esperientzia hobetze aldera.
- Landa-eremuetako merkataritza-eskaintzari lotutako seinaleak.

→ **Jasangarritasunarekin eta ekonomia zirkularrarekin** lotutako gastuak.

- Saltokiek eta kontsumitzaileek beren establezimenduetan erabilera bakarreko produktuen kontsumoa murrizteko inbertsioak, eta horien ordezkari ingurumena gehiago errespetatzen duten beste aukera batzuk jartzea.
- Merkataritza-establezimenduetako energia-kontsumoaren eta bestelako horniduren eraginkortasuna hobetzeko soluzio teknologikoak eta inbertsioak ezartzea. Klimatizazio-sistema berritzea edo galdarak ordezkatzeko barne.
- Prozesu ekoeraginkorrak egitea eta abian jartzea, hondakinak (biohondakinak, papera, plastikoa, beira, etab.) behar bezala bereizteko, ondoren birziklatu eta balioesteko.
- Hondakinak behar bezala birziklatzeko elementuak eskuratzea: paperontziak, edukiontziak, ...
- Bide publikoa CO2 fotokatalitikoak hartzeko zoladura ekoaktiboaren bidez eraldatzea.
- Produktuak entregatzeko ibilgailu elektrikoak erostea, eta zamalanetarako guneetan karga-puntuak jartzea.
- Negozio-ereduaren jasangarritasuna, klima-aldaketarako egokitzapena eta eraginkortasuna areagotzea bideratutako beste jarduerak eta irtenbide batzuk, ekonomia erresiliente eta karbono

gutxiko baterantz aurrera egingo dutenak eta hondakinen sorrera murriztea ekarriko dutenak, horien artean produktuen berrerabiltzea eta ekonomia zirkularra ezartzea.

→ **Hornidura eta trazabilitate** kateari dagozkion gastuak:

- Teknologia berriak erabiliz, tokiko edo hurbileko hornidura eta komunikazio-sareak sortzen dituzten proiektuetan inbertitzea, baldin eta honako eragile hauek guztiak zein hauetako batzuk inplikatzen badituzte: txikizkako merkataritza, tokiko ekoizleak eta antzeko zerbitzuen hornitzaileak. Bidalketen informazioa denbora errealean prozesatzeko eta kudeatzeko tresnak barne hartzen dira.
- Erosketen eta salmenten erregistroa digitalizatzeko eta gorabeherak erregistratzeko euskarri informatikoa.
- Etiketatze teknologia adimendunak.

→ **Sentsibilizazio eta prestakuntza** gastuak:

- Sentsibilizazioa eta prestakuntza teorikoa eta gaitasunen praktikoa honako alor hauetan: merkataritzako tresna teknologikoen erabilera eta kudeaketa, marketin digitala eta online salmentarekin lotutako datuen ustiapenean eta analisia, horretarako aukeratutako kanala edozein delarik ere.
 - Honako alor hauetan estrategiak sustatzeko prestakuntza, sentsibilizazioa eta kanpainak: ekonomia zirkularra, hondakinak sortzeari aurrea hartzea, produktuak berrerabiltzea, hondakinak zuzen bereiztea birziklatzeko eta produktuak berrerabiltzeko merkataritza-sektorearen negozio-ereduan.
 - || Jardunaldiak egiteko espazioa alokatzea.
 - || Jardunaldietarako beharrezkoak diren altzariak eta ekipoak alokatzea.
 - || Horiek egiteko hirugarren bat azpikontratatzeko, baldin eta azpikontratutako jarduerak ez badu gainditzen diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren % 80, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikuluan ezarritakoaren arabera. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da onuradunak diruz lagundutako jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa. Kasu horietan, jarduera horiek ematen dituzten langileek sinatutako ordutegi-partea erantsi beharko ditu onuradunak.
 - || Hizlarien ordainsariak.
- Inola ere ez dira diruz lagunduko bertaratuentzako ekipoak edo materialak, *merchandising*-ari lotutako gastuak, ezta tailerrak edo jardunaldiak egin aurretik sektoreak dituen beharrak ezaizteko gastu egozgarriak ere.

→ **Diruz lagun daitezkeen beste gastu batzuk:**

- Landa-eremuetan merkataritza-jarduera ezartzen, modernizatzen eta sustatzen laguntzeko WiFi sareak ezartzea, haien bidez landa-ekonomiaren lehiakortasuna, iraunkortasuna eta dibertsifikazioa hobetuz.
- Merkataritza-eskaintza eta antzeko beste sektore batzuk hobetzeko eta ikusarazteko jarduerak, teknologia berrien bidez erosketak-esperientzia hobetzeko.
- Landa-eremuetako merkataritza-eskaintzari lotutako seineleak.

Ebaluazio-irizpideak

→ **Hainbat inbertsio mota dakartzaten proiektu integralak.** Proiektuak ezarritako hainbat gastu-kategoriatan integratzea (0-10 puntu):

- Proiektuak diruz lagun daitezkeen gastu-kategoria bateko jarduketak barne hartzen baditu: 1 puntu.

- Proiektuak gutxienez diruz lagun daitezkeen bi gastu-kategoriatako jarduerak jasotzen baditu: 2 puntu.
 - Proiektuak gutxienez diruz lagun daitezkeen hiru gastu-kategoriatako jarduerak jasotzen baditu: 3 puntu.
 - Proiektuak gutxienez diruz lagun daitezkeen lau gastu-kategoriatako jarduerak jasotzen baditu: 4 puntu.
 - Proiektuak gutxienez diruz lagun daitezkeen bost gastu-kategoriatako jarduerak jasotzen baditu: 5 puntu.
 - Proiektuak diruz lagundu daitezkeen sei jarduera jasotzen baditu: 8 puntu.
 - Proiektua tokiko erronka eta jarduera-planekin, edo proiektuaren helburuarekin zuzeneko lotura duen beste edozein plan estrategikorekin edo garapen-planekin lerrokatuta egotea balioetsiko da, baldin eta proposamenaren bideragarritasuna ziurtatzeko adierazle neurgarriak barne hartzen badituzte eta lurralde-antolamenduko tresna orokorragoekin duen koherentzia frogatzen bada. Arazoa planteatutako soluzioarekin konpontzea eta espero diren beharrak identifikatzeko argitasuna baloratuko dira. Proiektuaren garapenarekin lotu nahi den emaitzak eta eraginak ebaluatzeko plan bat sartzea baloratuko da (0-2 puntu).
- **Jarduketan onuradun izan daitezkeen saltokien ehunekoa** onuradunaren lurralde-mugapeko saltoki guztiekiko. Puntuazioa proportzionala izango da ehuneko tarte hauen arabera (0-12 puntu).
- % 10 edo gutxiago: 0 puntu.
 - % 10 baino gehiago eta % 20 edo gutxiago: 1 puntu.
 - % 20 baino gehiago eta % 30 edo gutxiago: 2 puntu.
 - % 30 baino gehiago eta % 40 edo gutxiago: 4 puntu.
 - % 40 baino gehiago eta % 50 edo gutxiago: 5 puntu.
 - % 50 baino gehiago eta % 60 edo gutxiago: 5 puntu.
 - % 60 baino gehiago eta % 70 edo gutxiago: 6 puntu.
 - % 70 baino gehiago eta % 80 edo gutxiago: 8 puntu.
 - % 80 baino gehiago eta % 90 edo gutxiago: 10 puntu.
 - % 90etik gorakoa: 12 puntu.
- Udalerri gaindikotako proiektuak, **hainbat udalerri** hartzen dituztenak eta trakzio-izaeragatik lurraldean eragin handiagoa dutenak (0-5 puntu).
- Proiektuak gutxienez bi udalerriko irismena badu: 0,5 puntu.
 - Proiektuak hiru eta bost udalerri arteko irismena badu: 1,5 puntu.
 - Proiektuak sei eta zortzi udalerri artean hartzen baditu: 2,5 puntu.
 - Proiektuak bederatzi eta hamar udalerri artean hartzen baditu: 3,5 puntu.
 - Proiektuak hamar udalerri baino gehiago hartzen baditu: 5 puntu.
- Diruz lagundu daitezkeen ekintzaren bat ezartzen den tokiko erakundeko edo tokiko erakunde gehienetako **biztanleak**, INEk argitaratutako azken udal-eroldaren arabera (0-10 puntu) :
- 1.000 biztanle edo gutxiago: (10 puntu).
 - 1.000 biztanle baino gehiago eta 1.500 biztanle edo gutxiago: (8 puntu).
 - 1.500 biztanle baino gehiago eta 2.000 biztanle edo gutxiago: (7 puntu).
 - 2.000 biztanle baino gehiago eta 2.500 biztanle edo gutxiago: (6 puntu).

- 2.500 biztanle baino gehiago eta 3.000 biztanle edo gutxiago: (5 puntu).
 - 3.000 biztanle baino gehiago eta 3.500 biztanle edo gutxiago: (4 puntu).
 - 3.500 biztanle baino gehiago eta 4.000 biztanle edo gutxiago: (3 puntu).
 - 4.000 biztanle baino gehiago eta 5.000 biztanle edo gutxiago: (2 puntu).
- **Aurkeztutako proiektuaren kalitatea:** aurkeztutako proposamenaren bideragarritasun tekniko-komertziala eta ekonomiko-finantzarioa, gutxienez irizpide hauek kontuan hartuta (0 - 8 puntu):
- Diru-sarreraren eta gastuen aurreikuspena: (0-3 puntu).
 - Proposamenak konpondu nahi den arazoarekiko edo identifikatu den beharrekiko duen moldagarritasuna. Honako hauek baloratuko dira: arazoaren azalpena, diagnostikoaren kalitatea eta konpondu nahi den arazoa edo beharra identifikatzeko argitasuna, eta proiektuak arazo osoan edo haren zati batean modu positiboan nola eragingo duen (0-5 puntu).
- Proiektuak hainbat udalerritako merkataritza-establezimenduen artean salmenten gainera **sinergiak sortzeko** eta baterako ekintzak sustatzeko duen gaitasuna (0-5 puntu).
- Proiektuak **jasangarritasunari, energia-eraginkortasunari** eta merkataritza-establezimenduetan **teknologia berriak** ezarri eta erabiltzeko egiten dion ekarpena (0-20 puntu):
- Saltokiek eta kontsumitzaileek beren establezimenduetan erabilera bakarrekiko produktuen kontsumoa murrizteko inbertsioak egitea, eta, horien ordean, ingurumena gehiago errespetatzen duten beste aukera batzuk ezartzea, bai eta hondakinak birziklatzeko eta berrerabiltzeko prozesu ekoefizienteak ezartzea ere: (0-5 puntu).
 - Energia-kontsumoaren eraginkortasuna hobetzeko soluzio teknologikoak eta inbertsioak ezartzea (0-10 puntu).
 - Merkataritza modu digitalean eraldatzeko jarduerak egitea (produktuak saltzeko edo sustatzeko Interneteko atari eta plataforma komertzialetan integratuz) eta merkaturatze-kanalak garatzea, eskaintzaren eta eskariaren kudeaketa eta bezero hornitzaileen arteko harremana hainbat euskarri digitalen bidez hobetzeko ekintzak bultzatuz, (esaterako, produktu eraginkorrenak banatzeko ibilbide berriak diseinatzea): (0-5 puntu).
- Proiektuak enplegua eta/edo belaunaldi-erreleboa sortzeko izan dezakeen gaitasuna. Bi kasuetan, I.A eranskinean balio horien balizko gehikuntza justifikatu behar da: (0 puntutik 5 puntura).
- Proiektuak udalerriko **merkataritza-eskaintza dinamizatzeko, eguneratzeko eta aberasteko** duen gaitasuna. Proposatutako helburuan proiektuak modu positiboan nola eragingo duen azaltzea eta justifikatzea baloratuko da: (0-5 puntu).
- Proiektuek sektorearen produktibitatea berritzeko eta hobetzeko duten gaitasuna. Proposatutako helburuan proiektuak modu positiboan nola eragingo duen azaltzea eta justifikatzea baloratuko da: (0-5 puntu).
- Proiektuak **merkataritza-jarduera handiko bide publikoetan desgaitasuna duten bezeroen irisgarritasuna** hobetzeko inbertsioak egiteko dituen jarduerak eta gaitasuna: (0-10 puntu).
- Proiektuek **Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak sustatutako ideia-lehiaketetan** irabazle edo hautatu izan diren ideietako batzuk jasotzea balioetsiko da, dagokion justifikazioa beharrezkoa izanik (0-5 puntu).

Proiektuek 50 puntu lortu beharko dituzte gutxienez.

Intereseko beste alderdi batzuk

Onuradunak proiektuaren % 100 arte azpikontratatu ahal izango du. Hirugarrenekin hitzartutako jarduerak dirulaguntzaren zenbatekoaren % 20 gaitzen bada eta zenbateko hori 60.000eurotik gorakoa bada, onuradunak kontratazio hori egiteko aldez aurreko baimena eskatu beharko dio laguntza ematen duen organoari, eta baimena emantzat ulertuko da, baldin eta dirulaguntza emateko ebazpenean onuraduntzat jotzen bada.

Dirulaguntza emateko ebazpena igorrita badago, dirulaguntza ematen duen organoari eskatu beharko zaio azpikontratazio-baimena, eta hark hamar egun balioduneko epean ebatziko du. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik eman ez bada, baimena ezetsi egin dela ulertuko da.

Laguntza lortzeko eskabideak Merkataritza Politikako Zuzendaritza Nagusira bidaliko dira, hori baita prozedura agindu eta bideratzeko eskumena duen organoa. Zuzendaritza horren eskabide-inprimakiak Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren laguntza-atarian egongo dira eskuragarri, bete eta aurkezteko. Bertan, beharrezkoak diren laguntza-baliabideak izango dira.

<https://www.mincotur.gob.es/PortalAyudas/mercados-sostenibles-zonas-rurales/Solicitudes/Paginas/Index.aspx>